AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2183

EBAZPENA, 2015eko maiatzaren 7koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, organismo autonomo honetako lanpostu huts bat izendapen askez betetzeko deialdia bete gabe uzten duena.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2015eko apirilaren 1eko Ebazpenaren bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzan goi-kargudunaren idazkariaren lanpostua izendapen askearen sistema erabiliz betetzeko deialdia iragarri zen, eta bertan xedatutakoarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bete gabe uztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzan goi-kargudunaren idazkariaren lanpostua betetzeko deialdia; 520010 kodea, 184 dotazioa.

Bigarrena.– Ebazpena honek bukaera ematen dio administrazio-bideari. Aurka egiteko, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzien epaitegian, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 7a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.